| **2016KO OTSAILAREN 16AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXO KIROLAKEK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA** | **ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL CONSEJO RECTOR, EL DIA 16 DE FEBRERO DE 2016** |
|---|---|

Alvaro GONZALEZ PEREZ Jn.

| BERTARATUTAKO BOKALAK | VOCALES ASISTENTES |
|---|---|

ANDRADE AURRECOECHEA, Eduardo jn
AMIEVA CLEMENTE, Paula and.
AMORRORTU MARTINEZ, Iñaki jn
ARRAIZA ARAMENDIA, Maite and.
ARREGI MARTINEZ, Joseba jn.
CORIA YANGUAS, Elena and.
COS YAÑEZ, Susana de and.
EIGUREN ALBERDI, Keltse and.
IBABE BOTELLA, Miguel jn.
ITURBE MENDILIBAR, Koldo jn.
ITURRALDE FERNANDEZ, Oier jn.
LANDA ARTECHE, José Luis jn.
PRADA OLLETA, Enrique jn.
RODRIGUEZ LARRINAGA, Ibon jn.
SAINZ ROBLES, Santiago jn.
URIARTE GOROSTIAGA, Inazio jn.

| AHOLKULARI JURIDIKOA | ASESORA JURIDICA |
|---|---|

Ainhoa ALONSO BASANDUA and.

| IDAZKARIA | SECRETARIO |
|---|---|

Juan Ig. ASTORKITZA MOTA jn.

Getxon, bi mila eta hamaseiko otsailaren 16ko 17:00etan, Udaltzaingoako Bilkura Gelan egindako ohiko bilkuran, Zuzendaritza Batzordea bildu zen eta goian zerrendatu diren pertsonak bertaratu ziren.

En Getxo, a las 17:00 horas del día 16 de febrero de dos mil dieciseis se reúne en sesión ordinaria, en la Sala de Reuniones de la Policía Municipal, el Consejo Rector con la asistencia de las personas que arriba se relacionan.

28-AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Lehendakariak adierazi du goizean EH Bilduren idatzia jaso dutela, aktaren alegazioekin, eta, beste norbaitek alegazioak aurkeztu nahi baditu, une honetan bertan aurkez ditzala. Horrela, gai-zerrendako puntu hau hurrengo bilerara bitarte atzeratu dute. Akta behar bezala zuzenduta bidaliko da.

28-APROBACION SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA REUNION ANTERIOR

El Sr. Presidente informa que, esta mañana, se ha recibido un escrito de EH Bildu conteniendo alegaciones al acta y que si hay alguien más que quiera presentarlas que lo haga en este momento, quedando aplazado este punto del orden del día hasta la sesión siguiente, en la que se enviará el acta debidamente corregida.

29- 2015eko EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA

Lehendakariak Lehendakaritzaren 26/2016 ebazpenaren berri eman du. Alkatetza-Lehendakaritzaren aurrean aurkeztu dute 2015eko aurrekontuaren likidazioa, hala badagokio, onar dezan. Bertan bildutako pertsonei nahi duten galderak egin ditzaketela adierazi die.

29- DACION DE CUENTA DE LA LIQUIDACION DEL PRESUPUESTO 2015

El Sr. Presidente da cuenta de la resolución de presidencia número 26/2016 por la que se eleva a la Alcaldía-Presidencia para su aprobación, si procede, la liquidacón del presupuesto del año 2015, invitando a las personas reunidas a realizar las preguntas que consideren oportunas.

30- ZUZENDARITZAREN HIRU HILEKO TXOSTENA, 15/2010 LEGEAREN LAY.3 ETA BOST.4 ARTIKULUETAN JOSOTAKOA BETEZ (2015eko LAUGARREN HIRUHILABETE)

Lehendakari jaunak adierazten du deialdiarekin batera aipamen egiten zaion agiria bidali zela eta bertan bildutakoak egoki iritzitako galderak egitera gonbidatzen ditu.

31- PERTSONALAREN ORDAINKETEK %1 ETA, BERAREN APLIKAZIORAKO AGINDUAN, RPT-AREN ALDAKETA AREAGOTZEKO ONESPEN PROPOSAMENA

Lehendakariak adierazi du deialdiarekin batera bidali zutela erabaki-proposamena jasotzen duen agiria. Ondoren, bozkatu egin dute, eta emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ/PNV-PSE/EE-PP-C's)
Abstentzioak: 6 (EH BILDU-GUK)

Beraz, Getxo Kirolakeko langileen ordainsariak %1 igotzeko proposamena onartu dute.

32- GETXO KIROLAK ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA GETXO KIROLAK TOKIKO ERAKUNDE AUTONOMOAREN INSTALAZIOETAN ANTOLATUTAKO ZERBITZU ADMINISTRAZIO KONTRATUA, KIROLAREN SUSTAPENERAKO ETA GOI MAILAKO KIROLARIEN LANERATZEKO ZATI HAUETAN BANATUTA: 1.go ZATIA-RAKETAK (TENIS ETA PADELA); 2. ZATIA-URA (UR EKINTZAK) ONARTZEKO PROPOSAMENA

Lehendakariak adierazi du deialdiarekin batera bidali zutela esleipen-proposamena. Ondoren, bozkatu egin dute, eta emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: 7 (EAJ/PNV-PSE/EEs)
Abstentzioak: 10 (PP -EH BILDU-GUK-C's)

Beraz, bi sortak SPORT STUDIO SERVICIOS DEPORTIVOS SL (B95107272) enpresari esleitzea onartu dute, proposamenean agertzen den moduan.

INFORMAZIO OROKORRA

1.- URA

Lehendakariak aparkalekuen eta sarreren inguruan hartutako erabakien berri eman du.

Aparkalekuetarako bi leku hauek jarri dira: Aiboa institutu zaharreko lokalak eta Larrañazubiko orubea, garabiak jasotako ibilgailuen biltegia izan zena.

OICOSA eta Iturgitxitik sartu ahal izango da.

30- INFORME TRIMESTRAL DE LA DIRECCION EN CUMPLIMIENTO DE LO DISPUESTO EN LOS ARTICULOS CUARTO.3 Y QUINTO.4 DE LA LEY 15/2010 (4º TRIMESTRE 2015)

El Sr. Presidente informa que, con la convocatoria, se remitió el documento referenciado e invita a las personas reunidas a realizar las preguntas que consideren oportunas.

31- PROPUESTA DE APROBACION DE INCREMENTAR LAS RETRIBUCIONES DEL PERSONAL EN UN 1% Y MODIFICACION DE LA RPT, EN ORDEN A LA APLICACIÓN DEL MISMO.

El Sr. Presidente informa que, con la convocatoria, se remitió un documento al respecto en el que se recoge la propuesta de acuerdo, sometiéndolo, a continuación, a votación, cuyo resultado es el siguiente:

Votos a favor: 11 (EAJ/PNV-PSE/EE-PP-C’s)
Abstenciones: 6 ( EH BILDU-GUK)

Queda, por tanto, aprobada la propuesta de incrementar en un 1% las retribuciones del personal de Getxo Kirolak.

32- PROPUESTA DE APROBACION DE LA ADJUDICACION DEL CONTRATO DE SERVICIOS PARA LA PROMOCION DEPORTIVA Y LA EMPLEABILIDAD DE LAS PERSONAS DEPORTISTAS DE ALTO NIVEL PARA FOMENTAR EL DEPORTE DE CALIDAD, MEDIANTE EL DESARROLLO Y EJECUCION DE LOS CURSOS DIVIDIDOS EN LOS SIGUIENTES LOTES. LOTE1-RAQUETAS(TENIS Y PADEL), LOTE II-ACTIVIDADES ACUATICAS, ORGANIZADAS POR GEYXO KIROLAK Y EN LAS INSTALACIONES DEL O.A.L. GETXO KIROLAK

El Sr. Presidente informa que, con la convocatoria, se remitió la propuesta de adjudicación, procediendo, a continuación, a votar la misma, con el siguiente resultado:

Votos a favor: 7 (EAJ7PNV – PSE/EE)
Abstenciones: 10 (PP – EH BILDU – GUK – C’s)

Queda, por tanto, aprobada la adjudicación de ambos lotes, a la empresa SPORT STUDIO SERVCICIOS DEPORTIVOS S.L. (B95107272) tal y como se refleja en la propuesta.

INFORMACIÓN GENERAL

1.- URA

El Sr. Presidente informa de las decisiones adoptadas en materia de aparcamientos y accesos.

Para aparcamientos se han habilitado los locales del antiguo instituto Aiboa y el solar de Larrañazubi, donde estuvo ubicado el almacén de vehículos retirados por la grúa.

Para accesos se van a habilitar las entradas por

OICOSA e Iturgitxi.

Halaber, esan du Gurutze Gorriaren egoitza zaharretik instalazioetara sartzeko sarrera jartzeak erreparoa ematen diola.

Igualmente, informa que es reticente a habilitar la entrada a las instalaciones por la antigua sede de la Cruz Roja.

GALDE-ESKEAK

RUEGOS Y PREGUNTAS

Jarraian, Lehendakariak adierazi du EH Bildu, Guk eta C's taldeek egindako galderak idatziz erantzungo dituela, aktan idatzita gera daitezen.

A continuación, el Presidente informa que dará respuesta a las preguntas efectuadas, por escrito, por los grupos políticos EH Bildu, Guk y C's, para que quede constancia escrita en la presente acta.

EH Bildu

Getxo Kirolak-eko presidente jaunari,

Fadurako garagardotegia getxoko kirol eta beste motatako talde askok erabiltzen zuen. Zoritxarrez Fadurako garagardotegia erre egin da eta beraz, kirol talde hauek erabil zezaketen local bat galdu da.

Zein da Getxo Kirolaken asmoa Fadurako garagardotegiaren inguruan?. Berreskuratzeko asmoa dago?. Plagintza egiten hasi da?. Berreskuratzekotan, zenbat denbora kalkulatzen da garagardotegiko lokala berriro erabilgarria izan arte?.

Eskerrik asko, Stu.: Ibon Rodriguez Larrinaga

Lehendakariak adierazi du, suhiltzaileek egindako txostenaren arabera, sutea nahita piztua izan dela eta Ertzaintza eta aseguru-konpainia ikertzen ari direla.

Era berean, esan du GK-k instalazioa berreskuratu nahi duela eta orain arteko erabileretarako prestatu.

Epeei dagokienez, ezin du ezer kalkulatu harik eta ikerketa-lanak amaitu arte.

EH Bildu

Al señor Presidente de Getxo Kirolak:

La cervecera de Fadura la usaban muchos equipos deportivos y de otro tipo de Getxo. Desgraciadamente la cervecera de Fadura se ha quemado y por ello, se ha perdido un local que podían utilizar estos equipos deportivos.

¿Cual es la intención de Getxo Kirolak respecto a la cervecera de Fadura?. Existe intención de recuperarla?. ¿Se ha empezado a elaborar un plan?. En caso de recuperarla, ¿cuanto tiempo se calcula para que la cervecera esté de nuevo en uso?.

Muchas gracias. Fdo.: Ibon Rodriguz Larrinaga

El Sr. Presidente informa que, según el informe elaborado por los bomberos, el incendio ha sido intencionado y está bajo investigación de la ertzaintza y de la compañía de seguros.

Igualmente informa que la intención de GK es recuperar la instalación y destinarla para los mismos usos que se venían realizando hasta la fecha.

En cuanto a los plazos, informa que no puede estimar nada hasta que no finalice la investigación.

Guk

Presidente jauna,

GUK Getxo taldeak ondorengo informazioa eskatzen dugu, eta idatziz erantzutea nahi dugu, horren kopia Getxo Kirolakeko Zuzendaritza Batzordea osatzen duten talde politiko guztiek izan dezaten:

1.- Getxo Kirolaken instalazioen mantentze-lanen kudeaketa-ereduari buruzko informazioa. Sektorizatuta dagoen eta nola. Informazio, antolakuntza, kudeaketa eta exekuzio sistema

Stu.: GUK GETXO

Lehendakariak adierazi du idatzia gaur jaso dutela GK-n, eta, denbora-eskasia dela-eta, ezin izan diotela mantentze-lanen arduradunari informazio hori eskatu; dena den, agiri batean jasoko dira mantentze-lan guztiak.

Guk

Al Presidente de Gexto Kirolak:

Desde GUK Getxo solicitamos la siguiente información que deseamos sea respondida por escrito con copia a todos los grupos políticos que conforman la Junta Rectora de Getxo Kirolak:

1.- Solicitud de información sobre el modelo de gestión del mantenimiento, en general, de las instalaciones de Getxo Kirolak. Si está sectorizado y cómo. Sistema de información, organización, gestión y ejecución, etc.

Fdo.: GUK GETXO

El Sr. Presidente informa que el escrito se ha recepcionado hoy en GK y, debido a la premura de tiempo, no se ha podido solicitar al responsable de mantenimiento la información solicitada; no obstante se preparará un documento con todas las labores de mantenimiento.

C’s

Getxo Kirolak-eko Kirolak-eko Kontseilu Errektoreari

Kirola egiterakoan giro-tenperaturak duen garrantziaz eta horrek eragindako muskulu-talde desberdinen gain duen eraginaz jabetuta, zein da udal-igerilekuetako uraren tenperatura?

Stu.: Santiago Sainz Robles - Getxoko Ciudadanos (C`s) udal-taldeko zinegotzi-bozeramailea

Lehendakariak adierazi du uraren batez besteko tenperatura 27 eta 28 gradu artekoa dela.

Halaber, gaineratu du osasun-agintaritzaren baimena badutela tenperatura igotzeko haurtxoen eta amen arteko igeriketa saioetarako.

Ondoren, Amorrortu jaunak ondorengo idatzia irakurri du:

Urtarrilaren 26ko Zuzendaritza Batzordean, Lehendakari jaunak eta Langile, Erosketa eta Kontratazioko arduradunak egindako txosten juridikoa banatu zitzaigun, 14 orrialdekoa.

GUK-GETXOk Zuzendaritza Batzordeko gainerako kideei irakurri zien aldi baterako kontratazioa alde batera uzteko aurkeztutako idatzia, eta Lehendakariak ondorengoa erantzun zuen:

"Paradoxikoa iruditzen zaio zerbait alegatzea horren inguruan txosten bat eman zaienean, baloratzeko, zuzentzeko, aldatzeko, e.a."

Ondoren, Ibón Rodríguez harrituta agertu zen, Lehendakaritzari eskatu baitzioten, zuzendaritza-batzordeko kide gisa, Alonso andreak aldi baterako kontratazioaren inguruan egindako txostena, eta zer eta Lanbidera eskaerak eginda zeuden dagoeneko. Lehendakari jaunak honela adierazi zuen:

"Lanbiderekiko kudeaketa geratu egin zen, eta, beraz, hasierako prozedura ere bai. Ondoren, beste txosten bat egin da, fiskalizatu behar denak, eta, hortaz, prozedura berriari hasiera eman zaio."

Adierazpen horiek egin arren, Lehendakari jaunak bigarren aldiz erabaki du kontratazio-eskaera egitea Lanbideri, Zuzendaritza Batzorde honek aurretiko fiskalizazioa egin gabe, eta, Lanbidek aurrez hautatutako pertsonak pasa den asteazkenean, otsailaren 10ean, elkarrizketatzea.

Alegia, beste behin, Lehendakari jaunak egintza burutu du, batzorde honi baloratzen, zuzentzen, aldatzen,… utzi gabe; azken finean, zuzendaritza-batzordeari kontratazio-prozesua fiskalizatzen utzi gabe, hori burutu baino lehen.

Beraz, berriro diogu kontratazio-prozesua erabat baztertzen dugula.

Gure aurkako jarrera, labur esanda, bere garaian

C’s

Al Consejo Rector de Getxo Kirolak:

Siendo conscientes de la importancia de la temperatura ambiente en la actividad deportiva y la influencia que ésta tiene sobre los diferentes grupos musculares afectados, ¿cuál es la temperatura del agua de las piscinas municipales?

Fdo.: Santiago Sainz Robles – Concejal-Portavoz del Grupo Municiapl Ciudadanos Getxo (C’s)

El Sr. Presidente informa que la temperatura media del agua se sitúa entre los 27 y 28 grados.

Igualmente informa que tenemos autorización de la autoridad sanitaria para elevar la temperatura cuando se hace matronatación.

A continuación, el Sr. Amorrortu da lectura al siguiente escrito:

“En el consejo rector del pasado 26 de enero, se nos hizo entrega de un informe jurídico de 14 folios, elaborado por el Sr. Presidente y la Responsable de Personal, compras y contratación.

Cuando desde GUK-GETXO leímos al resto de los miembros/as del consejo rector, el escrito que habíamos presentado mostrando el rechazo a la propuesta de contratación temporal el Sr. Presidente contestó:

“Que le parece paradójico que se alegue algo cuando se acaba de entregar formalmente un informe al respecto para su valoración, corrección, modificación, etc.”

Posteriormente Ibon Rodríguez expuso su asombro porque habían solicitado a presidencia, como miembros del consejo rector, aclaraciones de la Sra. Alonso sobre la contratación temporal y resulta que ya estaban realizadas las solicitudes a Lanbide, a lo cual el Sr. Presidente manifestó:

“…. Se paralizó la gestión con Lanbide y, por tanto, se paralizó el procedimiento inicial. A continuación se elabora un nuevo informe que es el que hay que fiscalizar y que por tanto, se inicia un nuevo procedimiento.”

A pesar de esas manifestaciones, el Sr. Presidente ha decidido, remitir la solicitud de contratación a Lanbide, sin la previa fiscalización por este Consejo Rector, y, además, realizar las entrevistas de las personas preseleccionadas por Lanbide el pasado miércoles día 10 de febrero.

Es decir, que una vez más, el Sr. Presidente vuelve a consumar hechos sin permitir que este consejo rector valore, corrija, modifique….., en definitiva, sin permitir que el consejo rector fiscalice el proceso de contratación antes de que éste se lleve a cabo.

Por lo tanto, volvemos a mostrar nuestro más absoluto rechazo a este proceso de contratación.

Nuestra oposición, en síntesis, es la que ya se trasladó

aurkeztutako idatzian jakinarazi genuena da; gainera, Lehendakari jaunak eta Langile, Erosketa-Kontratazio eta Arlo Juridikoko arduradunak egindako txostenari ondorengo xehetasunak gehitu nahi dizkiogu:

1-Ataziorako legeak eskatzen dituen salbuespena eta premia justifikatu gabe daude oraindik (urriaren 29ko 48/2015 Legearen 21.2 Artikulua)

Pasaden Zuzendaritza Batzordean banatutako txostenean, honako hau bakarrik esaten da:

-Premia eta beharra kontzeptu juridiko zehaztugabeak dira, lehentasunezko sektoreen, funtzioen eta kategorien arabera (7. eta 9. orrialdeak).

Baina oraindik ez da zehaztu zein diren kontratazioak babesten dituen larrialdia eta premia

Gainera, horrela hartzeko moduko erreferentzia bakarra, seigarren puntu juridikoa litzateke; hau da,

"Salbuespen eta premia larri eta atzeraezinaren baldintzari dagokionean, esan behar da URA azaroan hasi zela lanak egiten, eta horiek egiteko urte bateko epea eman dela; ondoren itxi beharko da parke publikoa nola geratuko den ."

Nola izango dira hori premia eta salbuespena, kontratazioa justifikatzeko URAren obrak izango duen afekzioa eta hasitako kirol-proiektuei jarraipena eman beharra aipatzen badira? Non daude aipatzen diren proiektuei jarraipena emateko salbuespena eta premia? Non dago URAren obraren inpaktuaren balorazioa?

2- Ezin dugu baliozkotzat eman txostenean aipatzen den ondorengo justifikazioa: getxo kirolakeko langileek ezin dituzte beren gain hartu obrak eta proiektuei jarraipena ematea

Hemen kontraesana garbia da jasotako txostenaren (10. eta 11. orrialdeak) eta lehendakariak egindako adierazpenen artean. Txostenean GK-ko teknikari arduradunen lan-kargak arrazoitzen dira. Ondorengoak aipatzen dira:

- Langileen arduraduna
- Komunikazio-arduraduna
- Kirol federatu, saio eta eskola-kiroleko arduraduna
- Ikastaro eta kirol parte-hartzaileko arduraduna
- Baliabide ekonomikoetako arduraduna
- Mantentze-lanen arduraduna
- Kalitateko arduraduna

Txostenean esaten da Getxo Kirolakeko egungo langileek ezin dituztela egin gauzatu beharreko lanak (plangintza eta garapeneko langile teknikorik ez izateagatik).

Lehendakariak, ordea, urtarrilaren 27ko bilkuran ondorengoa ziurtatu zuen:

"Alvaro Gonzálezek, gobernu-taldearen izenean, esan du Gobeiako lanak hasi direla, eta eragina izaten ari direla Getxo Kirolakek ematen duen zerbitzuan. Horrela,

en el escrito presentado en su día, y además queremos añadir las siguientes puntualizaciones respecto al Informe elaborado por el Sr. Presidente y la Responsable del Área de Personal, compras-contratación y jurídico:

1- Se sigue sin justificar la excepcionalidad y urgencia exigida por la ley para la contratacion (Artículo 21.2 de la Ley 48/2015 de 29 de octubre)

El informe que nos entregaron en el pasado consejo rector, lo único que nos viene a decir es:

-Que la urgencia y necesidad es un concepto jurídico indeterminado, al igual que los sectores, funciones y categorías prioritarias. (páginas 7 y 9)

Pero sigue sin concretar cual es la urgencia y necesidad que ampara la contratación.

De hecho, la única referencia que podría considerarse como tal es la consideración jurídica sexta, que dice:

“En cuanto al requisito de excepcionalidad y de necesidad urgente e inaplazable, decir al respecto que las obras de URA ya han comenzado en noviembre y se ha adjudicado un plazo de ejecución de un año, necesitando cerrar posteriormente la forma en la que va a quedar el parque público”

¿Cómo va a ser esa la urgencia y excepcionalidad cuando la contratación se justifica en la gran afectación que tenga esa obra de URA y la necesidad de dar continuidad a los proyectos deportivos iniciados? ¿Dónde está la excepcionalidad y urgencia de dar continuidad a los proyectos que se citan? ¿Dónde está la valoración del impacto de la obra URA?

2- No podemos dar por valida la justificación que se da en el informe a la imposibilidad de que las obras y la continuidad de los proyectos no pueda ser asumida por los trabajadores de Getxo Kirolak.

Aquí existe una clara contradicción entre el informe recibido (páginas 10 y 11), en las que se argumentan las cargas de trabajo de los técnicos y técnicas responsables de GK. En el informe se cita:

- La responsable de personal
- El responsable de comunicación.
- El responsable de deporte federado, eventos y escolar.
- La responsable de cursos y deporte participativo.
- El responsable de recursos económicos.
- El responsable de mantenimiento.
- El responsable de calidad.

El informe dice que el personal actual de Getxo Kirolak no puede acometer las tareas que son necesarias desempeñar (por inexistencia de personal técnico en planificación y desarrollo…)

Y esto está en clara contradicción con las manifestaciones del Sr. Presidente en el pleno del 27 de enero en las que aseguró lo siguiente:

“Álvaro González, en nombre del equipo de gobierno, indica que las obras en el Gobela han comenzado y están generando impacto en el servicio que oferta

egoera berri hori erantzun nahian dabiltza, egungo zerbitzuak ematen jarraitzearekin batera. Langileak egungo egoerari irtenbidea emateko lanean ari dira beren lanaldian, udaleko teknikariekin elkarlana eginaz.

Getxo Kirolak y que están tratando de responder a esta nueva situación a la vez también que mantener la prestación de los servicios actuales. el personal está dedicando parte de su jornada a planificar la solución a la situación actual en colaboración con los técnicos del ayuntamiento…”

Beraz, txostena edo Lehendakari jaunaren adierazpenak ez datoz bat errealitatearekin, eta, ondorioz, ezin ditugu egiazkotzat jo adierazpen kontraesankorrak.

Por lo tanto, o bien el informe, o bien las manifestaciones del Sr. Presidente no se ajustan a la realidad y, por tanto, no podemos dar por ciertas unas manifestaciones contradictorias.

3- Hautaketari dagokionez, deusezta-suna garbia dela esan behar dugu

3- Respecto a la selección, debemos insistir en su manifiesta nulidad.

Urriaren 13ko 190/2004 Dekretuko 58. artikulua aipatzen da txostenean, eta, dekretu horretako 1.1 eta 1.3 artikuluen arabera, garbi dago hori soilik aplika dakiekeela funtzionarioei eta estatutupeko langileei, eta ez langile lan-kontratudunei, kasu honetan gertatzen den bezala.

Se alude en el Informe al artículo 58 del Decreto 190/2004, de 13 de Octubre, cuando conforme al artículo 1.1 y 1.3 del referido decreto, se deja a las claras que el mismo sólo es de aplicación al personal funcionario y estatutario, y no al personal laboral, que es el caso que nos ocupa.

Baina, aplikagarria balitz ere (ez da hala), alde batera uzten da berdintasuna, publizitatea, meritua eta gaitasuna eskatzen direla, eta, laburbilduz, ez da deialdiaren publizitaterik egin.

Pero es que, aún resultando aplicable, que no lo es, se obvia que se exige igualdad, publicidad, merito y capacidad y, por resumir la cuestión no ha existido publicidad de la convocatoria.

Lehendakari Jaunak esan diezaguke Bizkaiko zein aldizkari ofizialetan argitaratu den kontratua? Esan diezaguke Getxo Kirolaken web orrialdean non argitaratu den kontratua?

¿Nos puede decir el Sr. Presidente en qué boletín oficial de Bizkaia se ha publicado este contrato? ¿Nos puede decir en qué parte de la página web de Getxo Kirolak se ha publicado este contrato?

Prozedura honetan ez dira bete publizitate, meritu eta gaitasun arloko printzipioak; beraz, zuzenbide osoz deusez da (legez ezarritako prozedura ez jarraitzeagatik).

No se han cumplido los principios de publicidad, mérito y capacidad en este procedimiento, por lo tanto, es nulo de pleno derecho (por no haber seguido el procedimiento legalmente establecido).

Hori dela-eta, lehendakari jaunari eskatu behar diogu administrazio-espedientearen kopia osoa bidaltzeko Getxoko Udaleko Langileen Sailera, ondorengo alderdiak jasoko dituen txostena egitearren:

Por ello, nos vemos en la necesidad de solicitar al sr. presidente que se remita copia completa del expediente administrativo al Área de Personal del Ayuntamiento de Getxo para que se emita informe comprensivo de los siguientes extremos:

1.-Administrazio-espedientea ikusita, teknikari informatzailearen ustez, Getxo Kirolakeko langile lan-kontratudunak hautatzeko urriaren 13ko 190/2004 Dekretua aplikatu behar da?

1º.- A la vista del expediente administrativo, ¿considera el técnico informante que es de aplicación el Decreto 190/2004, de 13 de octubre, para la selección de personal laboral de Getxo Kirolak?

2.-Administrazio-espedientea ikusita, teknikari informatzailearen ustez, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren inguruko Legearen testu bategina onartzen duen 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuko (urriaren 30ekoa) 55.1, 55.2, 60 eta 61 artikuluak bete dira?

2º.- A la vista del expediente administrativo, ¿considera el técnico informante que se ha dado cumplimiento a los artículos 55.1, 55.2, 60 y 61 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del empleado público?

4- Azken ondorio gisa

4- A modo de conclusión final.

Kontratazioaren inguruan nolabaiteko susmoa badugu. Ibon Rodriguez jaunak, gure lankideak, Zuzendaritza Batzordeari honela adierazi zion Batzordeak urtarrilaren 2an egindako bileran:

Es que existe una sombra de sospecha con esta contratación, ya la trasladó al consejo rector nuestro compañero, el Sr. Ibon Rodríguez en la anterior sesión del Consejo Rector del 26 de enero, de que:

"Obren jarraipena egiteko eta orain arte garatutako funtzioekin jarraitzeko aldi baterako kontratazioa egin nahi da, eta badirudi ezkutuko aitzakia dagoela kontratazioa egiteko".

“se pretende realizar una contratación temporal para seguimiento de las obras y continuar con las funciones desarrolladas hasta ahora, lo que supone una excusa encubierta para realizar la contratación.”

Azkenean hori horrela balitz, GUK Getxok zentsuratzekoa eta publikoki eta juridikoki gaitzestekoa

Algo que, si finalmente resultase cierto, sería objeto de censura y reproche público y jurídico por parte de

litzateke, are gehiago ikusita publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez etengabe egin diren esleipenak, oker ez bagaude, 2008tik hona egin direnak, azken hau sartuta, guztira 8 kontratu.

GUK Getxo, máxime a la vista de las constantes adjudicaciones, por el procedimiento negociado sin publicidad, que datan, salvo error, del año 2008 y que suman, incluyendo este último, ni más ni menos que 8 contratos.

Ondorioz, eta erabateko gogo konstruktiboarekin, Lehendakari jaunari eskatzen diogu berehala geldiarazteko kontratazio-prozedura, eta premiazko izaerarekin ireki dadila prozesua zuzendaritza-batzordea osatzen dugun talde politiko guztiekin, Getxo Kirolak behar dituen baliabide materialekin ahalik eta ondoen hornitu ahal izateko.

Por ello, y con el máximo ánimo constructivo, solicitamos al Sr. Presidente que paralice de manera inmediata el procedimiento de contratación y que se abra, con carácter urgente, un proceso con todos los grupos políticos que conformamos el consejo rector, para ver cual es la mejor manera de, en su caso, dotar a Getxo Kirolak de los medios materiales que precisa.

Izan ere, ebaluatu ditugun txosten ezberdinen arabera, Getxo Kirolakek behar duen bakarra kudeatzaile bat da, kudeaketan eta plangintzan esperientzia teknikoa duena, Uraren obraren eta irekita dauden proiektu ezberdinen inpaktua kudea dezan, eta, hori horrela egingo balitz, betiere, berdintasun, publizitate, meritu eta gaitasun printzipioak erabat errespetatuta, Lehendakari Jaunak GUK Getxoren babesa izan beharko luke.

Y es que, según se deduce de los distintos informes que se han venido evaluando, lo que realmente precisa Getxo Kirolak es un Gerente, con experiencia técnica de gestión y planificación, que gestione el impacto de la obra de Ura y de los distintos proyectos abiertos, y si quiere dar ese paso, siempre y cuando se dé pleno respecto a los principios de igualdad, publicidad, mérito y capacidad, el Sr. Presidente contará con el apoyo de GUK Getxo.

Baina, opakutasunaren bidetik jarraitzen bada, hitza bete gabe eta legetik eta helburutik urrundutako aukeraketa-prozedurak hautatuta, Lehendakari jaunak gure erantzun irmoa izango du.

Ahora bien, si se sigue por la senda de la opacidad, del incumplimiento de la palabra y de la elección de procedimientos selectivos alejados de la legalidad y de su finalidad, encontrará el Sr. Presidente una contundente respuesta por nuestra parte.

Beraz, Lehendakari jaunari dagokio egoera bideratzea edo are gehiago gaiztotzea eta prozesua beste instantzia batzuetan konpontzea.

Del Sr. Presidente depende reconducir la situación o de enconarla más si cabe y que este proceso se zanje en otras instancias.

Alonso andreak GUK taldeak aurkeztutako idatziaren zenbait alderdi erantzun ditu:

La Sra. Alonso contesta algunos de los aspectos de este escrito de GUK:

1.- URAren obrak errealitate dira, eta ez dago aitzakiarik proposaturiko aldi baterako kontratazioa egiteko. Aldi baterako kontratazio bakarra da, 2015eko udan egindakoa kenduta, Udalak bezeroak artateko duen lanpoltsaren bitartez.

1.- Las obras de URA son una realidad y no es una excusa para efectuar la contratación temporal propuesta, siendo la única contratación temporal, excepto una realizada el verano de 2015, mediante bolsa de trabajo del ayuntamiento para atención al cliente.

2.- Zenbait proiektu estrategiko dagoeneko hasita daude, eta garatu egin behar dira erabat hedatu arte.

2.- Existen una serie de proyectos estratégicos, ya iniciados, que necesitan ser desarrollados hasta su total despliegue.

3.- Berdintasun, publizitate, e.a. arloko printzipioak ELEen ingurukoak dira. Kasu honetan aldi baterako kontratua izanik, araudia ez da hain zorrotza, eta Getxoko Udalaren eta erakunde autonomoen lanpoltsetara eta beste Udalen eta haein erakunde autonomoen lanpoltsetara jo daiteke; azkenik, LANBIDE / INEMera ere jo daiteke, alkatetza-dekretuan eta lehendakaritzaren ebazpenean lanpoltsen kudeaketaren inguruan esaten den moduan.

3.- Los principios de igualdad, publicidad, etc., se refieren a OPEs; en el caso que nos ocupa, contrato temporal, la regulación es menos estricta, permitiéndose acudir a bolsas de trabajo del ayuntamiento y organismos autónomos de Getxo, de otros ayuntamientos y sus organismos autónomos, y, finalmente, recurrir a LANBIDE / INEM, tal y como recoge el decreto de alcaldía y la resolución de presidencia sobre la gestión de bolsas de trabajo.

4.- Gainera, Udalaren fiskalizazioaren aurretiko iritzia eskatu da prozedura zuzena den ikusteko, eta ez da beharrezkoa aurretiko legezko fiskalizaziorik.

4.- Además, se ha solicitado la opinión previa de la fiscalización municipal para valorar si el procedimiento era correcto, no siendo obligatoria la fiscalización legal previa.

5.- Aholkularitza batek kudeatutako kirol-proiektuen larrialdi ezari dagokionean, prestazioa barneratu egin nahi zen, Udaleko beste sail batzuekin koordinatzea beharrezkoa izateagatik, batez ere URAren obretan zehar.

5.- Con respecto a la no urgencia de los proyectos deportivos gestionados por una consultora se pretendía internalizar la prestación al ser necesario la coordinación con otras áreas municipales sobretodo durante las obras de URA.

Jarraian, Lehendakari jaunak ondorengoa adierazi du:

1.- Txosten teknikoak ez ditu lehendakariak egiten, gai horretan eskumena duten langile teknikoek baizik.

2.- Aldi baterako kontratuak lehendakariaren eskumenekoak dira.

3.- URAren obren salbuespen-eza GUK taldearen ikuspegi partikularra da.

4.- Aurreko urteetako esleipenak proiektu zehatzetarako egin ziren, eta denek Udalaren legezko fiskalizazioak eskatutako legezkotasun-izapidea gainditu zuten.

5.- Hitza ez dugula bete esaten duzuenean, ez dakit zer esan nahi duzuen. Asmoak ez dira fiskalizatzen; ekintzak, ordea, bai.

Amorrortu jaunak esan du ez duela larrialdirik ikusten; izan ere, aspalditik jakin badakite URAk ibaian zehar lanak egin behar zituela. Gainera, ez du ulertzen zergatik ez den egin inolako publizitaterik.

Rodriguez jaunak zenbait zalantza dituela esan du:

1.- Urtarrilean egindako bileraren aktaren zirriborroan idazkariak txostenak bidaltzea eskatu zen, eta galdetu du txosten horiek eskatu ote ziren.

Lehendakari jaunak erantzun dio udal-idazkariak esan zuela Alkateak eskatu behar dituela txosten horiek.

2.- Fiskalizazio aldetik, eskatu du euskara-zerbitzuari galdetzeko kontratazioan proposaturiko HE egokia den edo ez lanpostu horretarako.

Lehendakariak eskatuko duela erantzun du.

3.- Zergatik behar izan dute hainbeste denbora langileen delegatuek egindako ekarpenak erantzuteko? Abenduaren 16an entregatu ziren, eta erantzuna otsailaren 8an jaso zuten; hori dela-eta, hautapen-prozesuan ez parte hartzea erabaki zuten.

Gainera, ezinbestekotzat jotzen dute 2HE, eta kontratazioko 3HE eta 4HE baloratzen ari direla erantzun diete; txostenean, ordea, 2HE eskatu dela esaten da.

Rodriguez jaunak adierazi du, EH Bilduren ikuspuntuaren arabera, ez dagoela legezkontrakotasunik, baizik eta legearen interpretazio bidegabea, erabilera interesatura egokitzearren.

Era berean, esan du ez dagoela ados GUKek zirriborroa baztertzearekin, txosten baten inguruan egin baitute fiskalizazioa eta ez zirriborroaren gainean. Ondorioz, galdetzen du teknikariek beren kontura joka dezaketen, eta, beste behin, Lanbidera joan eta zer-nolako baldintzetan egiten duten hautapen-prozesua egiteko.

Iturbe jaunak azaldu du erakunde autonomoen estatutuak osoko bilkuraren eskumenen traslazioa direla.

A continuación, el Sr. Presidente manifiesta:

1.- Los informes técnicos no los elabora el presidente, sino el personal técnico competente en la materia.

2.- Los contratos temporales son competencia del presidente.

3.- La no excepcionalidad de las obras de URA es una visión particular de GUK.

4.- Las adjudicaciones de años anteriores se efectuaron para proyectos concretos y todas pasaron el trámite de legalidad exigido por la fiscalización legal municipal.

5.- Cuando decís que se ha incumplido la palabra, no sé a que os referís y no se fiscalizan intenciones, sino acciones.

El Sr. Amorrortu expresa que no termina de ver la urgencia, cuando se sabe desde hace tiempo que URA tenía que actuar sobre el río, y, que no entiende que no se haya hecho ninguna publicidad.

El Sr. Rodríguez dice que tiene algunas dudas:

1.- En el borrador del acta de la sesión de enero se solicitó la emisión de informes por parte del secretario, y pregunta si se solicitaron los mismos.

El Sr. Presidente contesta que la respuesta del secretario municipal es que los informes se los solicite el alcalde.

2.- Con voluntad fiscalizadora, solicita se pregunte al servicio de euskera si el PL propuesto en la contratación es idóneo o no para este puesto de trabajo.

El Sr. Presidente contesta que lo pedirá, si procede.

3.- ¿Porqué se ha tardado tanto en contestar a las aportaciones realizadas por los/as delegados/as de personal?. Entregaron las mismas el día 16 de diciembre y no les llegó la contestación hasta el 8 de febrero y, en consecuencia, decidieron no tomar parte en el proceso selectivo.

Además, consideran imprescindible el PL2 y se les contesta que se está valorando para la contratación el PL3 y el PL4, y, sin embargo, en el informe se dice que el exigido es el PL2

El Sr. Rodríguez dice que, desde el punto de vista de EH Bildu, no hay ilegalidad, sino más bien una interpretación torticera de la ley para adaptarla a una utilización interesada.

Igualmente, dice no estar de acuerdo con el rechazo planteado por GUK al borrador, puesto que se ha estado fiscalizando sobre un informe y no sobre un borrador, lo que le lleva a preguntarse si los técnicos pueden actuar por su cuenta y acudir, nuevamente, a Lanbide, y en qué condiciones para realizar el proceso selectivo.

El Sr. Iturbe, aclara que los estatutos de los organismos autónomos vienen a ser una traslación de las competencias del pleno a los mismos.

Ildo horretan, egindako kudeaketa aztertu behar da. Susmoak, opakotasunak, e.a. aipatu dira, eta ez du bidezkoa ikusten hitz horiek erabiltzea etika politikoa medio, harik eta prozesu fiskalizatzailea amaitu arte. Behin hori amaituta, epaitegietara jo behar bada, jo egingo da. Politikari kaltea ez diote lapurtzen duten pertsonek soilik egiten, baita GUK taldeak Kontseilu Errektore honetan izandako jarrerek eta asmoek ere.

En este sentido, la competencia es sobre la gestión realizada. Se ha hablado de sospechas, opacidades, etc., y no le parece procedente que se empleen estos términos por ética política hasta que no esté finalizado el proceso fiscalizador y, una vez finalizado si hay que acudir a los tribunales se hace, y que daño a la política no solo hacen las personas que roban, sino también actitudes e intenciones como las que ha tenido GUK en este Consejo Rector.

Jorratzeko beste gairik ez dagoenez, bilkura amaitutzat ematen da akta honetako goiburuan adierazitako eguneko 18:05ak direnean.

Sin más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:05 horas del día mencionado en el encabezamiento de la presente acta.

Lehendakaria / El Presidente

Idazkaria / El Secretario